

VILAFRANCA-KO EUSKAL-FESTAK

EUSKAL-ITZ-JOSTALDIEN EGINTZA

Donostiako Euskal-itz-jostaldien Batzarrea dator gaur Villafranca-ra, Kontu ematera, bear dan errespetoarekiñ leku au onratzen duten entzule guztiai, zer nolakoadan, aurtan, izkribatzalle eta musikarieren indar.neurtzeetan, batzar epalle bereziak erabaki duten sari emaldia.

Arreta aundiz esamiñatn ondoren aurkeztu diran moldaera guziak, zeñen agiria egiten dan urteoroko Oroimengarrian irabazi dituzte SARIYAK, izkribatzalleen artean: On Paulo Zamarripa eta-On Blas Praderek, *iEtzaitz ill amacho!* eta *Mendikota-ko lurruspe ezkuta-petsuba* izendatzen diranakgatik.— Irabazi dituzte ALDEERAK: On Biktorianoa Iraola, Ona Rosario Artola, On José Olaiola eta On José Artolak, *Aita Andrés Urdanetaren oroitzian kantachoa*, *Ume Zurtza*, *Bizi modu berriya* eta *Euskerazko kontuak* izentzat dituztenegatik.—Irabazi dituzte AIPAMEN ONRAGARRIYAK: On Juan Ignacio Urangak bi, On Blas Pradere, On Enrike Elizechea, On Biktorianoa Iraola, On José Ignacio Garmendia eta On Juan Oyanguren-ek, *Biursariyak* eta *Kirkirrak udaberriyari*, *Urdanetari omenak*, *Ordizia*, *Beserriko bizimodua goyerriyan*, *Villafranca-ko feriya*, *Kontu elkarte* eta *Aitonaren gordairuba* izendatuakgatik.

Musikarieren artean irabazi dituzte SARIYAK: On Anastasio Huici Zalakain, On Balentin Larrea eta On José Rodoreda-k, *Zortzikoa*, *Loriak* eta *Euskaldun arbolea zutirik ichita* azalkaitzat dituzten zortziko eta euskal-kanta moldaerakgatik.

Villafranca-n, 1904-ko Agorraren 19-an.

Batzarrearen izenean:

Dianagusia,
ALFREDO DE LAFFITTE.

Goarpelari ordekoa,
TORIBIO ALZAGA.